

## **ADIERAZPENA – DECLARACIÓN – DECLARATION**

Behean sinatzen dugun legelariok,

### **KONTUTAN HARTUZ**

- A. Historikoki partaide garen erkidego politikoak, aurrerabidea, ongizatea eta hiritar guztien aukera berdintasuna hobetzea helburu edukita, baita berezko kultura eta identitate kolektiboa indartzea xedetzat hartuta ere, autogobernurako duen nahia behin eta berriro adierazi duela. Egun, geure autogobernu sistemaren oinarria eskubide historikoetan ere datza, oinarri horri sekula uko egin ez zaiolarik.
- B. Gure erkidego politikoak barne hartzen dituen lurralde historiko guztiek amankomuneko hizkuntza, kultura, gizarte eta ekonomia duten eremua osatzen dute, lurraldeen artean elkarrekiko aintzatespena oinarri hartuta, loturak sendotzeko eta gaurkotzeko joera dutelarik.
- C. Faktore historiko, politiko eta legalen ondorioz Lapurdi, Zuberoa, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Behe Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako hiritarrak bilduak izan diren, eta diren, antolaketa juridiko-administratiboak desberdinak izan dira. Era berean, etorkizunari begira, lurralde horiek Estatu espainiar zein frantziarrarekin izan behar dituzten harremani buruzko proposamen politikoak, zein zazpi lurraldeen arteko harremani buruzko proposamenak ere desberdinak eta anitzak dira. Proposamen aniztasun horri buruzko eztabaida publikoa parte-hartze printzipioa, erabaki demokratikoa eta gehiengoaren errespetuan oinarritu behar da, eta hala izanik, bere etorkizun kolektiboa finkatzeko, Erabakitzeko Eskubidea hiritargoaren oinarritzko tresna edo lanabes bihurtu behar da.
- D. Orain artekoan Erabakitzeko Eskubideak agerpen juridikorik izan ditu, hala nola 2004ko abenduaren 30ean, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Euskadirako Estatutu Politikoaren proposamenean, 2005eko otsailaren 1ean Diputatuen Kongresuak bere izapidera onartzea arbuiatu zuena. Beste ekimen politiko zein gizarte ekimen batzuetan ere Erabakitzeko Eskubidea eta Autodeterminazio Eskubidea aldarrikatuak izan dira, adibidez Eusko Legebiltzarreko 1990ko otsailaren 15eko, zein 2014ko maiatzaren 29ko

adierazpenetan, Iparraldeko Batera proposamenean edota Aieteko Akordioaren 4. puntuan.

- E. Gaur egun indarrean dugun autogobernu eredua, Gobernu zentralaren eskutik, ekonomia, ongizate eta kultura arloetan indar biziko oldarraldi politiko eta eskumen erasoak jasotzen ari da. Autogobernu ahalmen eta eskumen mugaketa horiek, gizarte eta ongizate eredu propioa eraginkorki garatzeko aukerak galarazten dituzte.
- F. Etorkizunari begira, sistema demokratikoaren berriztatzea eta indarberritzea galdatzen duen aldaketa testuinguru politiko orokor honetan, Erabakitze Eskubideak berebiziko garrantzia hartzen du gizartearen partehartzea ahalbideratzen duelarik. Erabakitze Eskubidea, bestalde, kohesiorako lanabes bihurtu da, bai etorkizuneko sistema konstituzioaren baitan bere txertaketa proposatzen dutenentzat, baita ere erabateko subiranotasun eszenatokiak proposatzen dituztenentzat.
- G. Europar Batasunaren baitan zenbait herrik Erabakitze Eskubidea baliatu duten edo baliatu nahi duten honetan, geure herrian ere, arrazoizkotzat deritzogu, Erabakitze Eskubidea egikaritzeko beharrezko diren baldintzen bila aritzeari.
- H. Une honetan gure herrian dugun testuinguru politikoa, ideologia desberdinetako legelarien arteko elkarguneak bilatzeko aproposa da, Erabakitze Eskubidea baliatzeari begira elkarlana ahalbidetuz eta lankidetzaz esparruak sortzeari bide emanez.
- I. Erabakitze Eskubidearen egikaritzea honako printzipio hauetan oinarritu behar da: legitimitate demokratikoa, gardentasuna, elkarrizketa, gizarte kohesioa eta lurralde kohesioa, eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoen eskubideak barne hartuz.

Esandakoa dela bide, honakoa

#### **ADIERAZTEN DUGU:**

- 1.- Euskal gizarteari dagokiola bere etorkizun politikoaz Erabakitze Eskubidea.
- 2.- Printzipio demokratikoa Erabakitze Eskubidea gauzatzeko tresna dela, betiere oinarritzeko eskubide eta askatasunak, demokrazia, ongizate estatuarekiko engaiamendua, Europako herrien arteko solidaritatea, eta garapen ekonomiko, gizarte garapen eta garapen kulturalari erabateko atxekipenaz.

3.- Geure herriaren etorkizun politiko kolektiboa aske eta demokratikoki erabakitzeko, elkarlanari ekingo diogula, berme juridiko guztiak izan behar dituen herri galdeketa demokratiko bat ahalbidetzen laguntzeko.

4.- Hiritargoa ordezkatzeko duten instituzioen eskuduntza eta funtzioen kalterik gabe, hiritargoari ere, badagokiola diren baliabide juridiko (barnekoak, zein nazioartekoak) guztien sustapena eta diren lege prozedura guztien erabilpena, Erabakitzeko Eskubidearen indartzea eta bere egikaritzea efektibo bihurtzeko.

5.- Azkenik, Erabakitzeko Eskubidea egikaritzeko prozesuan era aktiboan parte hartzeko dugun asmoa publikoki agertu nahi dugula eta euskal legelari guztiak animatu nahi ditugula, prozesu demokratiko honetako protagonista aktiboak bihurtzeko.

IZEN ABIZENAK	POSTA ELEKTRONIKOA	OGIBIDEA	HERRIA

Deklarazioaren atxekimendua gauzatu daiteke zure datuekin orri hau betez, eta ondoko posta helbidera igorritz: [erabakizaleak@gmail.com](mailto:erabakizaleak@gmail.com)<sup>1</sup> edo <http://erabakizaleak.wordpress.com> web orrian dagoen formularioa betez.

---

<sup>1</sup> Abenduaren 13ko 15/1999 Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan ezarritakoa betez, zure datuak fitxategi batean erantsiak izango direla jakinarazten dizugu helburua ondoko hau delarik: Ekimen hau eta bere sinatzaileen babesa zabaltzea eta Erabakitzeko Eskubidearen gaineko informazio juridikoa jasotzea.

Sinatzaile orok, fitxategi honetan bilduta dauden bere datuen aurrean atzitu, zuzendu, ezeztatu eta oposatzeko eskubideak erabiltzeko aukera izango du, hori eskatuz, [erabakizaleak@gmail.com](mailto:erabakizaleak@gmail.com) posta elektronikora mezu bat igorrita.